

# Gizonezkoen emetasuna agerian

Laura Mintegi

"Ilunbeen bihotzean"  
Joseph Conrad  
euskaratzailea: Iñaki Ibañez  
Ibalzabal, 1991

Joseph Conrad subjektitatearen idazlea dugu. Bere liburuak gazte literaturaren atalera txokoratu badira ere, literaturgintzaren maisu lanak ditugu sujetoaren baloreak adierazteko unean: angustia, supernia, kuraia eta justizia ondo baino hobeto agertzen dira marrazturik bere liburuetan. Sujetoak superniaren presentzia sentitzen du ("Lord Jim") edo angustiaren zartada ("The Rover" eta "The Arrow of Gold") Conrad-en pertsonaiak gizaki tormentatuak dira, ezbeharren jabe, gertakizun handien elementu ahula, eta, hala ere, ahots propioa altxatzeko ahalmen eta kemen nahikoa biltzen dute, anonimato anodinoan hondoratu ordez.

Joseph Conrad ere halakoxea izan zen bere bizitzan zehar. Urte luzeez itsaso guztiak zeharkatu ondoren, lehorreratu eginz en azkenean, eta idazteari eman zion jo eta su. Itsasoetan ikusitako gizakien barne izaera ulertezin eta ustegabekoa hartu zuen gai nagusizat bere liburuetan, eta halaxe azaldu zuen ere "Kronika Pertsonala" izenburuaz idatzi zuen liburuan: "Gizakien portaera epaitzerakoan azalezinezkoa den horri egin behar diogu lekua, areago bizi garenmunduan, non azalpen bakarra ere behin betikoa ez den".

Gizakiarengan konfidantza osoa zuen, edozein gizaki sujeto izan daitekeelako sinesmena baitz zuen. "Barne ahotsa azkeneraino izan daiteke fidela, estalirik eta ezkutaturik badago ere".

Eta ezuste horrek, hau da, edozein unetan erabakitasuna atera ahal izate horrek ematen dio konfidantza eta itzaropena, aurretik gertatuko ez delako itxura hartzen badiogu ere.

Kritikari batek ziotson legez, "idazle askok letren azpian ezkututzen dute beraien eritzi eta kemen pertsonal eza, eta ez diote sakonean dagoena ulertzeari ekin nahi ziaten. Jarrera horrekin, jakina, subjektibitateari uko egiten diote, eta horrekin batera penitentzia: asubjetiboak dira: egon badaude, baina ez dira, izan. Conrad-ek, ordea, espreski errefusatzen du objektibitatea, eta eritzia emateko orduan ez du ez oztopo ezta arazorik ere ez."

Joseph Conrad-ek, oro har, gizakiarengan dagoen sustantiboa azalarazten du, adjetiboaren gainetik. Muinera jotzen du, agerian jartzen ditu sujetoaren handitasun eta miseria, sujetoa azken finean.